


## 4. “Barscunes” txanpon nafarra

### Julio Caro Baroja



Julio Caro Baroja antropologo, etnologo, historialari, hizkuntzalaria eta saiakera-idazlea izan zen. Madrilen 1914an jaio zen amaren aldeko euskal jatorriko familia batean. 1995ean hil zen. Pio Baroja nobelagile ezagunaren iloba zen. Gaztetan Bera herrira joaten zen eta hor askotan berarengan arrasto handia utzi zuen Pio osabarekin egoten zen.

Historian lizentziatu zen. Egindako lanen artean Joxemiel Barandiaran eta Telesforo Arantza direkin burututako ikerketa lanak eta hainbat herrialdetan emandako eskolak daude (Oxford, Munich, Bonn, Kolonia, Berkeley, Atenas, Bartzelona...).

Erakunde askotan parte hartu zuen: Euskaltzaindia, Bartzelonako Letra Onen Akademian, Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademian Hispanic Society of American, Alemaniako Arkeologia Institutuan...

Kultur antropologiaren eta gizarte historiaren bidez lortutako aurkikuntzei ikuspegi bateratua emanez, gizakiaren eta horren kultur munduaren ikuspegi osoa ematea zuen helburu. Ereku zabalak jorratu zituela, gizarte historia orokorretik hasi eta historiaurrea, linguistika, teknologia, artea, herri-literatura, etnologia, zapal dutako gutxiengoaren gizarte historia, numismatika, hirigintza eta mitologiaren. Hortik sortu zitzaion osotasunaren etengabeko bilaketarako ekimena.

30 bat liburu eta ia ehun artikulua eta saiakera idatzi zituen: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, *Sobre la lengua vasca y el vascoiberismo*, *Los pueblos del norte de la Península Ibérica*, *La vida rural en Vera del Bidasoa*, *Los vascos. Etnología, Vasconiana. De Historia y Etnología, Etnografía Histórica de Navarra, Los Vascos y la Historia a través de Garibay...*

Laburpen honen iturria:

<http://kulturaniztasuna.wordpress.com/antropologoak/>

## 1. “Sobre la lengua vasca y el vasco-iberismo”

---

Julio Caro Barojak idatzitako liburuetatik hizkuntzalaritzari zuzendutako nagusienetako bat dugu hau. Liburuan euskera eta iberiera lotzen zituzten teoriak aztertu zituen, hori defendatu zutenen eta horien lanak aipatuz: Garibai, Moret, Larramendi, Astarloa, Humbolt, Juan Bautista Erro Azpirotz, Lorenzo Hervas, Emilio Hübner, Hugo Schuchardt...

Ikerle hauen lanak ondo aztertu zituen eta bere iritziz, oker bazeuden ere, Julio ez zen gauzak zuri edo beltzak direla esaten zuenetakoa. Adibidez, Schuchardten iberierazko deklinazioari buruzko lanaren gainean, Gomez-Morenok idazkera iberiarra deszifratu baino lehen idatzitakoa, zertan ez zuen asmatu eta zertan bai diosku. Alegia, ez zuen lan guztia paperontzira bota eta gauza batzuk baliagarriak izan zitezkeela aipatu zuen, genitibo plurala adibidez: *Ittircescen* edo *Ittirkesken*, edo *lokatiboa*.



Hugo Schuchardt  
hizkuntzalari eta  
euskaltzale alemaniarra  
Gotha, 1842 - Graz, 1927

Ondorio hori ateratzeko, alemaniarren lana goitik behera aztertu eta iberierari buruzko ezagutza handia erakutsiz (numismatika, toponimia...), hipotesi guztiak mahai gainean jarri zituen.

(Etorkizuneko biltzar batean Julio Caroren lanak zehatzago aztertzea komenigarria da)

## 2. Senidetasun izendapenak

---

Caro Barojaren *Baile, Familia, Trabajo* izeneko liburuan, atal batean senide izendapenei buruz hitz egiten digu. Lehendabizi baserri bateko biztanleak baserri horren izenez deitzea euskal usadiotzat hartzen du eta, horrek, etxeak duen garrantzia adierazten duela diosku. Euskalkiz euskalki izendapen asko ere jaso zituen liburuan, asko Azkueren hiztegirik hartuta. Ikus ditzagun jaso zituen izendapenak:

### a) Senar-emazteak

- senargaia, andregiaia
- ezkondu
- uztarkide (“bikote” nafarreraz, “conyuge”ren sinonimotzat har litekeena)
- senar, senhar
- andre, andra (zelterarekin lotuta?)
- aitamak, guraso, guratso (-so osagaia beste zenbait senidetasun izenetan dago); batzuen ustez “agure” hitzarekin lotuta egon liteke

- aita, aite, aitta, aitte, attsa, attse, atta, atte, aitaso
- ama (hainbat eremu geografikotan erabiltzen den izendapena), amaso

#### **b) Seme-alabak**

- aurrak, haurrak, aurso
- semeak, semiak, semeso (batzutan bilobak, semeordeak, semebitxia izendatzeko) (latinezko semen hitzarekin lotu dute batzuek baina ez dirudi zuzena denik)
- alabak, alhaba, alabaso (batzutan bilobak, alabaordeak, alababitxia izendatzeko)
- anai, anea, anaia, anaie, anaje, anaxe
- aizpa, ahizpa, aispá, aizta, aizperdi (ahizpaordea)
- neba
- arreba, arrebaerdi (arrebaordea)
- nebarrebak, senide (Gipuzkoako leku batzutan)



#### **c) Aitita-amamak / aitona-amonak / aitatxi-amatxi**

- aitona, aitita, aitite, aituna, aitajauna, aitanagusi, aitagoia, aitaso, aitatxo, aitatxi
- amona, amama, amuna, amandre, amanagusi, amagoia, amatxi, amautxi, amatxo, amaso
- biloba, ilobaso, iloba ttipi (batzutan iloba)

#### **d) Izeko-osabak**

- osaba, oseba, osoba (batzutan aitagarreba izendatzeko)
- izeba, izea, izaba, izeko (batzutan aitagarreba izendatzeko)
- loba, iloba

**e) Aitagarreba-amagarreba**

- aitagarreba, aitaiarreba, aitagarreba
- amagarreba, amagarreba, amaiarreba, amiarreba

**f) Aita pontekoa-ama pontekoa / aitabitxi-amabitxi**

- aitabesoetako, aitabitxi, aitaeder, aitagutxi, aitauxi, aita atxi, aita ponteko, aita punteko, aita pondako, aita borze, aita plara
- amabesoetako, amabitxi, amander, amagutxi, amautxi, ama ponteko, ama punteko, ama pondako, ama borze, ama plara, amaidi
- seme ponteko, semeratsi
- alabitxi, alabader, alaponteko

**g) Senideak oro har**

- senidetasun, senitarte, senitasun, senitarteko, senikera, senikide... (sen- erroa duten hitz hauek Bizkaian batez ere erabiliak)

**h) Errespetua adierazten dutenak**

- aitajaun, amandre
- aitanagusi, amanagusi
- aita haundi, ama haundi
- aitagoia, amagoia

**i) Maitasuna adierazten duten hitzak**

- aitobe, aituna (aita hobea), amona, amuna (ama ona)



### 3. Barscunes txanpon nafar “Iurperatuak”

---

#### a) Deskripzioa eta topatutako lekuak

*Bascunes* edo *Barscunes Pirinioaldean eta Nafarroaldean* zegoen txanpon baten izena da, iberieraz idatzitako letrak dauzkana. Ez dago jakiterik zehatz-mehatz non zegoen baina Iruñean edo Rocarte izan ahal zen, nahiz eta beste batzuek Viana ondoan kokatu duten, bertan horrelako 52 txanpon aurkitu zirelako. Baita Tafallan, Zangotzan eta Gernikan ere aurkitu izan dira.

Txanponak denarioak dira eta bizardun gizon baten aurpegia dute alde batetik eta, atzeko aldetik, zaldizko bat zaldi gainean. Txanponek testu hau dute: **Bascunes/Barscunes**.



*Bascunes edo Barscunes txanponaren aurreko eta atzeko aldeak*

#### b) Zelteraz idatzita?

Teoria batzuen arabera zelta hizkuntzan idatzitakoak daude:

- bar = taldea, komunitatea
- cunes: mendiak, gainak, goialdeak

Hau da, Goialdekoak edo Menditarrak adieraziko luke.

#### c) Gorrochateguiren iritzia

EHUko Joaquín Gorrochateguik honi buruz zera adierazi zuen: txanpon honen testua euskal “baskoiak” hitzarekin identifikatzea **gaindu egin da** eta mundu zeltiberikoarekin zerikusia duela argi dago.

#### d) Argia aldizkariko artikulua

2010eko maiatzaren 16an, Urko Apaolazak izenpetuta, artikulua agertu zen Euskal Herrian aurkitu den txanpon honi buruz:

“Euskal Herriko txanpon zaharrenean –K.a. 150eko erromatar denario bat-ordea, ez da enperadore famaturik ageri, gizon bizardun eta ezezagun baten kopeta baizik. Baina pezaren bestaldean izen adierazgarria irakur daiteke: *Baskunes*.

Bilakaera bitxia izan dute *Baskunes* izenaren esanahiaz egin diren teoriak. XIX. mendean, iberiar grafia oraindik deskodifikatu gabe zegoenean, Aloïs Heiss eta Antonio Delgado **aditu prestigiotsuek Oiasso** portu euskaldunarekin lotu zuten txanpona, bertan irakurtzen zuten ustezko legenda (lessona) oso antzekoa zelako.

Gero, jakin zenean iberiarrez *Baskunes* ipintzen zuela –edo *Barskunes*, beste zenbait kasutan–, **Caro Baroja bezalako autodidaktek ezin izan zioten tentazioari eutsi “basko” erroarekin lotzeko.**

Orain, **hizkuntzalariek ia ziurtzat jotzen dute zeltiberiar jatorriko terminoa dela**, nahiz eta oraindik ere maiz egiten den foro batzuetan *baskunes=vascones* identifikazioa. **Dena dela, ez da zalantzarik denario “autoktono” batez ari garela, moneta fabrika non zegoen ez dakigun arren –batzuen ustez Iruñea inguruan zegoen–, *Baskunes* ugari agertu baita euskal lurralde osoan: Tafallan, Vianan, Zangotzan, Iruñean, Gernikan...** Bestalde, txanponaren alde batean agertzen den zaldunak (ikusirudia) ezpata motza darama eskuan, eta hori ez da batere normala Iberiako beste lekuetan.

Bai txanpon hauek eta bai inguruko beste antzeko asko ere (*Cascaita, Bentian, Olcairun...*) zeltiberiarren kontrako borroketan sortu ziren, K.a. 150-50 urteetan. Moneta zirkulazioa asko handitu zen garai horretan, erromatarrek mertzenarioei ordaintzeko modu erraza baitzen dirua. Baina K.a. 45ean Julio Zesarrek Mundako bataila odoltsuan Ponpeiori irabazi ondoren, Inperio osoko finantza sistema aldatuko du eta debekatu egingo du moneta lokalak lantzea, gure *Baskunes* denarioak barne. Aurrerantzean, Erromako enperadoreen irudia zeramaten denarioak baino ez ziren egingo *Mare Nostrumeko* lau ertzetan.”

#### e) Julio Caro Barojaren iritzia

Nahiz eta Argiako kazetariarentzat Caro Baroja bezalako autodidakta izan (ze errespetu gutxi) Juliok planteatutakoa logikoena zen. Ikus dezagun:

- **Topatutako lekua:** batik bat, baskoien lurraldean: Tafallan, Vianan, Zangotzan, Iruñean, Gernikan. Lurralde honetan beti egon dira euskaldunak, zelta gutxi batzuk egon ahal baziren ere, alegia, lurraldea ikusita, argi dago erromatarrentzat “baskoien” lurraldean dagoela.



- **Antzekotasunaren printzipioa:** “barscunes” eta “baskoiak” hitz antzekoak dira, zalantzarik gabe. Printzipio edo lege hau ez da latinerako bakarrik, beste hizkuntzek eskubide bera dute.
- **Euskal nortasuna.** Euskal tradizioan euskalduna inguruko herriak baino harrotasun gutxiagoz jardun du. Adibidez, etxearen abizena hartzea, edo etxeari lekuaren deskripzioa jartzea. Inguruko herrietan, ordea, herriei edo etxeei... pertsonen izenak jartzen zitzaizkien. Beraz, gure arbaso euskaldunek euren txanponari tribuaren izena jartzea oso logikoa zen, erromatarrek enperadorearen izena jartzen zuten bitartean.
- **Numismatikaren ezagutza.** Julio, seguruenik, penintsula osoko numismatikaren ezagutza handienetakoa izan duen Euskal Herriko pertsona izan da. Berak idatzitako *Sobre la lengua vasca y el vascoiberismo* liburuan 60 orrialde ditu numismatikan agertutako testuei buruz. Lan zinez sakona eta zehatza. Beraz, bere iritzia, iberieraz idatzitako txanpon baten testu bati buruz, zinez, kontuan hartzekoa da.
- **Zeltaren hipotesia.** Kontuan har daiteke baina “baskoia” hitzarekin antzekotasun baino indar gutxiago daukala dirudi. Gainera, euskaldunen eremuan, “baskoien” eremuan zehatz-mehatz aurkitu izan dira, zelta oso gutxi omen zegoen lekuan.

**Ondorioa:** “baskunes”, “baskoiak” baino lehenago edozein gauza izan daitekeela esatea eta bultzatzea, inolako oinarri, proba edo indizio indartsurik gabe, ez al da euskeraren duintasunaren kontra joatea?